

Centro Asesor de la Mujer
—“ARGITAN”—
Emakumeentzako Aholku Etxea


CEA(R) EUSKADI
Comisión de Ayuda
al Refugiado en Euskadi



Cruz Roja
Gurutze Gorria



ELLACURIA
FUNDAZIOA
GIZARTE GUNEA
CENTRO SOCIAL



Guk, Bizkaiko Etxe-garbitzaileen Elkarteak, Barakaldoko Argitan Emakumeentzako Aholku Etxeak, CEAR-Euskadik, Euskadiko Elkarbideak, Gurutze Gorriak, Ellacuria Fundazioak, Maria Inmaculada Gizarte Etxeak, Basauriko Emakumeen Elkarteak eta Zubietxe Elkarteak, enplegu arloan bitartekari gisa aritzen diren GKEek eta sektore horretan lan egiten duten pertsonen laguntzen dieten erakundeek planteatuko dituzten gutxieneko baldintzei buruzko hitzarmen bat zehaztu dugu.

Legeak ezartzen dituen soldatak oso txikiak dira, merkatuan ordaintzen ari direnak baino txikiagoak, eta, gainera, etxe-garbitzaileek ez daukate soldata horiek hobetzen dituen hitzarmen kolektiborik. Ondoren datorren taula proposamen bat da, etxe-garbitzaileen baldintzak horiek baino okerragoak izan ez daitezten eta kontratugileek nahierara ezar ez ditzaten.

Gure helburua da etxe-garbitzaileek taula hori oinarritzat hartzea, kontratugileekin baldintzak negoziatzeko. Alde horretatik, zereginen eta beste faktore batzuen arabera (zaintza-lanen kasuan: zenbat pertsona zaindu behar diren, zer arreta-maila behar duten...), etxe-garbitzaileek soldata handiagoak eska ditzakete.

El año 2012 entró en vigor una nueva normativa que regula las condiciones laborales y de Seguridad Social de las trabajadoras de hogar.

Si bien supuso un avance en algunos aspectos, todavía quedan cuestiones pendientes que siguen colocando a este sector en situación de desigualdad con respecto a otros.

Así, entre otras cuestiones, permite jornadas de 60 horas semanales; no concreta las tareas ni establece categorías profesionales; no regula la jornada nocturna ni define claramente los descansos; legaliza descuentos sobre el salario por alojamiento y/o manutención de hasta un 30% del mismo; en el caso de las internas, no fija los requisitos mínimos que debe cumplir el alojamiento de las mismas, ni su régimen de comidas...; no hay normas de seguridad e higiene en el trabajo...

Esto unido a la dificultad de negociar un Convenio colectivo y la absoluta falta de implicación de los servicios públicos de empleo (en la CAV, Lanbide) para intermediar en el sector, colocan a las trabajadoras de hogar en una clara desventaja a la hora de negociar sus condiciones laborales que suelen quedar a la discreción de quienes las contratan o a la intervención de agencias privadas de colocación y prestadoras de servicios que la mayoría explotan, engañan y se lucran del trabajo de las empleadas de hogar. Así, entre otras cosas, ofertan empleos de 7 días a la semana, no respetan los descansos, discriminan por el origen de las personas, cobran parte del salario de las trabajadoras mensualmente llegando hasta un 50% del mismo, no dan de alta en la Seguridad Social...

Tratando de paliar esta situación, entidades que intermedian en el empleo doméstico sin ánimo de lucro y/o asesoran a las trabajadoras de hogar respecto a sus derechos

laborales en Bizkaia, han concretado un acuerdo que fija las condiciones a respetar en todas las contrataciones.

Consiste en una tabla que establece los salarios mínimos que debieran regir dependiendo de las jornadas y tareas contratadas en cada caso y que sirvan de referencia para las partes.

Una vez más, insistimos en la necesidad de una regulación legal que reconozca realmente derechos, que los servicios públicos de empleo, en nuestro caso Lanbide, intermedien también en este sector de forma ágil y eficaz (de hecho, el propio Parlamento vasco ha instado a Lanbide a que esto sea así hasta en cuatro ocasiones en los últimos años) y que la Inspección de trabajo controle y sancione a las agencias privadas de colocación que actúan impunemente al margen de la legalidad.

Etxe-garbitzaileen laneko eta gizarte-segurantzako baldintzak arautzen dituen araudi berria 2012an jarri zen indarrean. Gai batzuetan aurrerapen handiak ekarri zituen, baina beste batzuk konpontzeko daude oraindik, sektore hori beste batzuekin parekatu nahi bada.

Besteak beste: asteko 60 orduko lanaldiak egitea onartzen du; ez ditu ez zereginak ez maila profesionalak zehazten; ez ditu gaueko lansaioak arautzen, ezta atsedenaldiak argi eta garbi ezartzen ere; ostatu emateagatik edo/eta mantenuagatik soldata %30 jaisteko aukera ematen du; barneko langileen kasuan, ez ditu adierazten ostatu emateko gutxieneko baldintzak, ezta otorduen erregimena ere; ez dago laneko segurtasun- eta osasun-araurik...

Horrez gain, etxe-garbitzaileen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko zailtasunak dauzkate eta enplegu-zerbitzu publikoak (EAEn Lanbide) ez dira bitartekari gisa batere inplikutzen. Gauzak horrela, etxe-garbitzaileek eragozpen handiak dauzkate lan-baldintzak negoziatzeko eta, azkenean, kontratugileek, enplegu-agentzia pribatuek edo zerbitzu-enpresek ezartzen dituzte; eta agentzia eta enpresa gehienek langileak esplotatu eta engainatu egiten dituzte, eta haien kontura aberasten dira. Izan ere, asteko zazpi eguneko lansaioak eskaintzen dituzte, ez dituzte atsedenaldiak errespetatzen, jendea jatorriagatik diskriminatzen dute, garbitzaileen soldataren parte bat kobratzen dute (zenbaitetan %50a), langileei ez diete gizarte-segurantzian alta egiten...

Hala, egoera hori arintze aldera, etxeko lanen alorrean bitartekari gisa aritzen diren eta etxe-garbitzaileei lan-eskubideen inguruan aholku ematen dieten irabazi-asmorik gabeko Bizkaiko erakundeek kontratazio guztietan errespetatu beharreko baldintzak ezartzen dituen hitzarmen bat adostu dute.

Hitzarmen horretan gutxieneko soldatak daude zehaztuta, kasu bakoitzean kontratatutako lansaio eta eginkizunen araberakoak, bi alderdiek oinarritzat har ditzaten.

Beste behin, azpimarratu nahi dugu, batetik, etxe-garbitzaileen eskubideak aintzatesteko arauak behar direla; enplegu-zerbitzu publikoek, gure kasuan Lanbidek, etxeko lanen sektorean bitartekari-lanak egin beharko lituzketela, arin eta modu eraginkorrean (berez, Eusko Jaurlaritzak lau aldiz eskatu dio horixe bera Lanbideri, azken urteetan); eta Lan Ikuskaritzak legez kanpo aritzen diren enplegu-agentzia pribatuak kontrolatu eta zigortu beharko lituzkeela.